

EURIA

- 1000 ttantta dira.

Botikariak salneurriaren berri eman didanean, ezinbestean bekokia zimurtu dut; nire azal lehorra are eta ageriago utziz. Salneurria garestia iruditu zait baina eduki dezakeen balioarekin alderatuta... alderaketa hori, aldaratzea erabaki dut; nire buruko pentsamenduetan urrutira bidaltzea.

Ilada berean dagoen nire atzeko tipoak, eztul artifzial bat egin du; benetazko gezurrezko eztul bat, alegia. Bere trajearengatik, hidrologoa dela badakit. Grafenozko trajeen artean, azken modeloa daramalako; jantzia gehiago indartzen duen aleazio berezi batekin egina. Hidrologoak, XXIII. mende honetako jende errespetagarriak dira. Dena den, eurei errespetuzkoak izatea falta zaie, oraindik. Jakintsuak dira, status berezi baten jabeak. Gure mundu honen haragizko zutabeak dira, haiek gabe ezingo genukeelako biziraun.

Beraz, halako jende ponpoxoarentzat ilada batean zain egon behar izateak deserosoa izan behar du.

Hatz nagia luzatu diot botikariari kobratu diezadan, eta ordaintzeko tramankulua aurrean paratu eta behatza sartu dut zuloan. Argi berdea piztu da lehenik, gero bat-batean gorrira egin du salto, gero berdea berriro, gorria... Botikariak, tramankuluaren eromena ikusita, nire aurretik aldendu eta segundu batzuk itxaron ditu ordenagailu nagusia kontsultatzen duen bitartean. Buelatu denean, argi berdea markatzen du tramankuluak, argi berde ahul bat...

- Ordaintzeko adina izan duzu oraingoan, baina muga-mugan zaude...-
bota dit erruki begiradaz botikariak.

Badakit zertaz ari den. Badakit zerengandik nagoen muga-mugan. Osasunaz ari da, nire osasunaz. Hotzikararik ez dut sentitu oraingo honetan, izan ere; azala hain lehorra daukat...

Beste eztultxo bat egin du atzeko hidrologo jaun txit dotoreak. Gaixotasunetik gutxi du bere eztulak, baina agian bai edukiko duela arima eri. Iparra galarazten duten ego-ak elikatzen ari garen gizarte honetan, halakoak are eta sarriago gertatzen hasi dira. Beti izango zen agian antzeratsu, garai zaharretan ere bai; baina diruak errespetuarekin zerikusi gutxi duela irakatsi izan didate oraindik bizirik eta osasuntsu aurkitzen diren 152 eta 155 urteko nire gurasoek. Eta hori, eurak diruari errespetu itzela diotela...

- Gainera, euria dago iragarrita...- gaineratu dit adiozko diosala izan nahi duen tonu batean botikariak.

Nire grafenozko trajeko adabaki eta zuloak begi bistakoak dira. Oraintxe bertan, nire gorputza guztiz babesten ez duen jantzia da daramadan grafenozko trajea. Eta jantzi kaxkar honek, gizartearen aurrean biluzten nau. Grafenoaren erabilera, XXI. mende hasieran nagusitu zen, aintzinako mugikor zahar haien kristalak egiteko. Batez ere, ez zelako kristala. Haren funtzioak egiten zituen material malgu bat zelako, gogorra eta moldagarria aldi berean. Grafenoa gorputzera bikain atxikitzen zaigun, larruazal artifizial berri baten antzera.

Botikariak azkar igarri du eta atzeko hidrologoak, baita ere. Badakite trajea txukun eta zuloak gabe mantentzeko gai ez banaiz, zerbait gaizki doala nire bizitzan. Eta ageriko zirrikitu horietatik, besteen bizitzak kuxkuxeatu eta jukatzen dituzte, erruki begirada nahiz eztultxo bidez. Eta halako jarrerekin, munduan bere lekua galdu duen ni bezalako bat, bere tokian jartzen dute. Baina... toki guztiak ezin dira lekutu, eta norberaren espazioan kokatzen asmatzen ez bada, lekutan gelditzen da gizakia! Agian, hortxe; espazioan...

- Badakit. Erositakoa bidali ezazu tele-transportagailuz eman dizudan algoritmo-sortak markatzen duen helbide fisikora, etxean horren zain egongo dira-eta. Hamar nano- segundutan iritsiko da, ezta? milesker guztiatik- esan diot botikariari, eta alde egin dut.

Baina batez ere, alde egin diot hidrologoari, mespretxuzko begirada suhar bat bota ostean. Eta hark, begirada onberarik ezean, begiratu bota dit.

Hodei beltzak begitandu zaizkit kutsadura kapaz harago, Donostiako erdiguneko iparrorratzek uzten duten zirrikituetatik barrena. Zeruko hodei beltzek, nire barruko laino beltzagoekin bat egiten dute gainera.

Botikara joateko arrazoia, emazteari bularretako esnea moztu izanak eman dit; haurrarentzako hauts-esnearen beharra genuela-eta. Gure egoera ekonomikoak gure harremana erasan du bortizki, eta bularretako esne-jarioa eten dio. Gure lehengo harremana, soilik hartu-emana da orain.

Hainbat milurte pasa diren arren, jaioberriek jaioberri izaten jarraitzen dute; bai behintzat hasierako hilabete horietan. Gure seme txikiak, zehazki 3 hilabete ditu, eta orain arteko denbora; azkar igaro da. Igarotze horrek, agian zeharkatu egin gaitu gu, bortizki; alderik alde, egoera honetara ekarri gaituen arte.

Gure gorputz idorrek ezer gutxi balio dute gizarte honetan, dena ur-tantten bidez ordaintzen denetik. Aberatsenak, gorputz urtsu eta osasuntsuak dituztenak dira, lanean jasotzen ditugun soldatak ur-dosien bidez ordaintzen baitira. Eta guk, badaramagu ia urte bete lanik egin gabe eta estatuaren ttanttak xurgatuz, ia bukatzeaz ditugun laguntzak. Klase baxukook, lanbide eskasetara bideratzen gaituzte, nire eta nire bikotearen kasuan bezala. Gure lanbideak prestijiorik ez dute: ni telekomunikazio injenieria naiz eta nire bikotea, domotikan aditua. Gure gaurko gizartean, edozeinek egin ditzazkeen lanak dira. Horregatik, gure lanek eta enpleguek, ogibide izateari utzi diote.

Gure egoera latzak, gure artekoa ere lehortu eta lehen arrakalak bistarazi ditu. Ia 51 urte betetzear ginela biok, orain zela unea erabaki genuen, gure gorputz adindu eta ximelak, idortu zitezene baino lehen. Eta bizi bat sortzea erabaki genuen, gure bizitzari poza ekar ziezaion.

Nire burutazioetan murgilduta, kalean oinez nijoala ez naiz kotxehegalarien presentziaz ohartu. Kotxeen ziztu biziko joan-etorria arrotza zait, nire joana; oinezko joana, kezken etorriak baldintzatzeko duelako. Hori bai, ikusten dut lainoak trinkotzen dijoazten neurrian, jendea ere bere

neurriak hartzen ari dela: grafenozko trajeak konpontzen dituzten dendak lepo aurkitzen dira , azken orduko konponketak egiteko.

Euria datorrelako. Erauntsia, agian.

“Alpha-centaury” banketxearen ate aurrean gelditu naiz. Azkeneko ahalegin bat egiteak merezi du, erantzun onik ez espero arren; azkenaldi guztietan bezala. Sartu bezain laster, betiko holograma automatak eman dit ongi-etorri automatikoa. X izpien bidez eskaneatu ostean, “ez zara ongi-etorria” bota dit hoztasunez, aldiro bezala.

- Diru kopuru baten inguruko tratu bat egitera nator, Aquarium-erako bidaiaren aurretik.

Holograma segundu batzuz mutu gelditu da, harridurak kolpatu balu bezala. Bat-batean, gizatiarragoa egin balitz bezala. Baina segituan deitu dio hezur-haragizko zuzendariari eta “Zuzendaria bulegoan daukazu zain” batekin, bere oniritzia eman dit korridorean aurrera egin dezadan.

Erraza izan da zuzendariarekin elkarrizketa. Agian, misterio gutxi dagoelako egin behar dudan horretan. Hezur-haragizkoa bai, baina pertsona izatetik urruti dagoen zuzendariarekin negoziatu ostean, dena amaituta zegoela uste nuenean; bere kezka azaldu dit.

- Aquarium-era zoaz, zure azken bidaiari. Ongi, oso ongi, ausarta zara... baina zure trajea ikusita, iritsiko zara? Jada euria hasi du kanpoan eta sarrerako hologramak esan dit oinez etorri zarela...

Kilometro eskasera aurkitzen da Aquarium-a eta berak dion bezala euria hasi badu, lanak izango ditut haraino iristen nire traje pitzatuarekin. Baina ez dut nire beldurren jakitun izaterik nahi , ez diot nire ezinegona maileguan eman nahi. Langabetua izanik, nire lan bakarria hara iristea izango delako.

- Zuri komeni zaizu ni hara iritsi nadin, eta niri ere bai. Beraz, iritsiko naiz. Zuri axola behar dizun bakarria, dena amaitzen denerako dirua prest edukitzea da. Arazorik izango duzu horretarako?

Serio begiratu dit eta ezer gehiago gehitu gabe, hatz-markez sinarazi dit ordenagailuan. Bestelakotan luzatu gabe, agurtu da; bostekorik ere eman gabe. Auskalo zenbagarrena naizen! Enegarrenon aieneak entzuten ohitua egongo da dagoeneko... kalera irten eta Aquarium-era ahalik eta lasterren iristea besterik ez zait gelditzen. Zuzendariak, jada bidean naizenaren abisua pasako zien bertakoei.

Irten naizenean, lehen euri ttanttek larruazala sutu didate. Izan ere, euri-azidoa ari du. Denboran 65 urte atzera eginda, ordudanik egiten duen euri apurra beti da azidoa. Gizakiok lurra guztiz kutsatu, baliabide natural guztiak erabat ustiatu eta tenperatura 10 gradu igoarazi genuenetik, euria sua da. Su likido bat. Eta grafenozko trajeek zulorik ez duten neurrian, euriarengandik babesten gaituzte baina denboraren higaduraren ondorioz; apurtzen eta zuloz betetzen joaten dira. Eta konpondu ezean, euri-azidoaren erredura hezeak, gure gorputzak zauritu eta kixkali egiten dituzte. Eta konponketak garestiak dira, oso garestiak. Soilik, dirua dutenek aurrera eraman ditzakete konponketa horiek.

Aquarium-era korrika abiatu naiz, zuloetatik sartzen den berotasunari erreparatu gabe. Trajea pixkanaka pixkanaka deusezten doa eta nire gorputzeko larruazalarekin bat egiten du, euriak erauntsiari bide egiten dion bitartean. Eta erauntsiak, trajea gainean izan arren, erantzia uzten nau.

Aquarium-a jada aurrean daukat. Beti bezala, harresiz eta poliziaz inguraturik aurkitzen da, gure gizarteko altxor garrantzitsu bat delako. Ur asko dago bertan, baina tristeena da; oraindik are eta ur gehiago pilatzen jarraitzen duela. Garai zaharretako txanpon-fabrika baten funtzio bera egiten du egun, aberastasuna produzitzen du; aberastasun likido bat. Baina aberastasun hori, ni bezala etsipenak jota gaudenon eskuetatik iristen da. Eta etsituan eskuetara, ez zaigu inoiz aberastasunik iristen.

Poliziek ez didate pasatzea eragotzi. Alderantziz, ongi babestutako euren garita postuetatik, bidea zabaldu eta noruntz joan behar dudan esan didate garrasika, nire korrikaldian geratu ez nadin. Barruko aterpera iritsi naizenean, robotek hartu naute. Jada ez naiz ni, ordea. Trajea erabat

deseginda, garai batean gizakia zena, erreduraz jositako izaki bat naiz, tente mantentzeko ere arazoak dituena.

Lurrera erori naizenean, robotek larrialdietako sorospen protokoloa jarri dute martxan, ziurrenik; enegarren aldiz. Erredurak garbitu eta freskatu dizkirate nitrogeno likidoaz baliatuta eta zerbait txertatu didatu barruan, biziberritu nadin.

Heriotzerako biziberritu nadin.

Kontzientzia berreskuratu dudanean, automatek protokolozko galdera egin didate.

- Zure misioaren kodea?
- Aqua-omega.

Robotek makina nagusia atontzeari ekin diote, orduan. Bitartean, nire ideiak ordenean jartzeko probestu du unea. Nire sendiak ezin duela horrela jarraitu-eta, amaieraren hasiera iritsi da. Ura altxorrik preziatuena den mundu honetan, nire hondar-alea jartzera noa; ur-ttanten forma hartuko duen hondar-alea. Eta noski, ordaindu egingo didate; baina ez niri, nire familiari baizik. Nik ezin badut bizitzen jarraitu, nire sendiak bizirauten jarrai dezala, behintzat. Nireak egin duenean, estatuak banketxearen bidez ordainduko dio nire sendiari.

Makina prestatu dute eta garai zaharretako exekuzio aulki baten antza hartu diot, hainbat filmetan ikusitakoaren oso antzekoa. Eta automatek hodi xurgatzaileak gorputz guztian barreiatzen dizkirate bitartean, irribarre ironiko bat gailendu zait ezpainetan.

Ez dut beste erremediorik izan, gizakiok 3/4 ura garela-eta, nire heriotza gorpuztearen testigu izango naiz, gorpu bilakatu aurretik. Nire gorputza eskainiko diot gizarteari, nire haragia eman nire sendiak ogia eduki dezan datozen urtetarako.

- Errepikatu kodea azkenekoz, mesedez-agindu dit robotak.
- Aqua-omega.

Eta noizbait, bizia uretatik etorri zela jakitun, hemendik aurrera nire bizia ura izango da, berriro. Hargatik, nire bizitza, heriotzera jariatzen utzi dut.

Ttanttaka.

AQUA

Ermuko Udal Liburutegia - Biblioteca Municipal de Ermua